

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**HEZKUNTZA**

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntza Departamentuak Aniztasunaren trataera lantzeko plan estrategikoaren berradorea aurkeztu dio Eskola Kontseiluari

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 24

Aniztasunaren Tratatueraren plan estrategikoaren ildo nagusiak aurkeztu ditu Hezkuntza Departamentuak gaurko Eskola Kontseiluan. Oraingoz berradore-aldian dago plana eta datozen egunotan berradorean jasotzen diren lerro estrategiko bakoitzean zeresana duten agente eta

ordezkariekin partekatuko da dokumentua, euren ekarpenak eta iritziak eman ditzaten, eta dokumentua osatzen joan dadin. Departamentuak ekainaren amaieran egin asmo du planaren jendaurreko aurkezpena. Beraz, uda aurretik amaituko dira planak aurreikusitako lehenengo bi urratsak.

Hirugarren aldia irailean hasiko da; alegia, planaren gizarteratzea. Fase horretan aurreikusi dira planaren difusioa, sentsibilizazioa eta hezkuntza komunitateko eragileen parte hartze prozesua, hauek ere ekarpenak egin eta plana aberastu dezaten.

Eskola Kontseiluari egindako aurkezpenean azaldu denez, orain arteko lanak urte eta erdiko ibilbidea izan du eta 3 ikasturtetan zehar garatzen joango da Aniztasunaren Trataera lantzeko plan estrategikoa.



Ikasleak gela batean.